

Mario Zubiaga

Tolosa, 1963. Zientzia politikoa irakasten du EHUUn; Leioan. Desobedientzia zibila gaia landu du teorian eta praktikan. 18/98 sumarioan auzipetua izan zen. Espainiako Estatuaren trantsizioaz eta euskal subiranotasunaz solastatu gara. “Ez bakarrik borroka armatua, politika egiteko modua bera ere zaharkituta dago” esan digu.

MIKEL ASURMENDI
Argazkiak: Iñigo Azkona



«Prozesuan hauteskundeak izatea distortsio izugarria da»

Espainiako Estatuaren sistema demokratikoa ekarri zuen trantsizio politikoa amaitu al da? Mario Zubiagak honela erantzun digu: “Batzuek Konstituzioa onartu zenean amaitu zela diote. Beste batzuek, berriz, PSOEk gobernua lortu zuenean. Juan Carlos Erregeak bere semeari agintea eman arte ez dela amaituko diote bestetzuek. Euskal Herrian berriz, indar extrasistemiko bat dagoen bitartean ez da amaituko. Amaitu gabeko trantsizioa da, nire ustez”.

Trantsizio egoeran segitzen dugu beraz? Amaiera eztabaidan betiere.

Trantsizio baten aldagaiak *iterra* edo bidea, *locusa* edo lekua eta *tempusa* edo denbora dira. Prozesu politiko batean indar sistemikoen eta extrasistemikoen arteko mugak birdefi-

nitzen doaz etengabeen. Euskal prozesua amaitu gabeko egoera horretan kokatzen da. Xiberta, Arjel, Lizarra-Garazi eta Loiolako negoziaketetan trantsizioan geuden eta orain ere bai. Prozesuan aldatzen dena *iterra*, *locusa* eta *tempusa* dira. Sistemaren mugak birdefinitzen ari dira oraindik ere.

“Lizarrako saioa edo akordioa gaizki itxi izanak ez du berau nola ebatzi zen estali behar” idatzi izan duzu. Sakondu horretan.

Lizarrako prozesua Xibertan eseri ziren bi alde nagusiek –EAJk eta ETAK– hartu zuten norabideari buelta emateko saioa izan zen, nolabait esanda. Lizarrako planteamenduen arabera, teoriar behintzat, Xibertan jarrera apurtzailea hartu zuena, ezker abertzalea, garaile

agertzen zen. Sinbolikoki, ezker abertzaleak EAJri esan zion: “Xibertan hartu zenuen bidea okerra izan zen”. Autonomiaren aukera utzi eta subiranotasunaren bidea urratuko duzu gurekin. Ezker abertzalearen ideia hori zen, baina EAJk ez zuen horrela irakurri. Fronte nazionala osatzeko ordua heldu da pentsatuko zukeen EAJk, baina ETAririk gabe. Bi alde horiek ez zuten akordioa ixterik lortu. Hau ideia orokorra da, izan ere, subiranotasunaren bidean akordioa oztopatzen duten faktoreak asko dira.

Esate baterako.

Bat, oso garrantzizkoa, trantsizio hasierako [Xibertan] lehenengo negoziazioek zuten “abantaila”, geroko saioetan ez bezala, hauteskundeak ez egotea izan zen. Alegia,



ez zegoen neurtuta zein zen alderdi baten eta besteren indarra edo galera. Batzuek “kalea gurea da” zioten, beste batzuek, hauteskunde legea gurea da, beraz, nik “neutralizatu-ko” ditut botoak. Denak kalkuluak ziren... Behin prozesua abiatu ondoren, indarrak neurtuak eta jakinak direnean, posizioak eta interesak erakundeetan finkatuak direnean, negoziaketek kostu politiko bat dute botoetan. Epe laburreko kalkulu politikoak nagusitzen dira eta zaila da herriaren intereseko politika nagusietan pentsatzea. Trantsizio prozesu hauek sistemaren politikaren funtzionamenduari-kin batera kudeatzea oso zaila da. Izan ere, prozesuaren emaitza indar sistemikoentzako galera izaten da. Beste bat sartzen da tartaren banaketan. Lizarrako eta Anoetako prozesuetan oso faktore distortsionanteak izan dira hauteskundeak.

Prozesuaren bilakaeraren ondorioz, nolabait, EAEko zentro politikoa hartu duela dio PSEk. Zuk zer diozu?
PSEk badaki berea salbuespenezko Jaurlaritza dela, gehiengoa behartu dutela. Beste kontu bat da, PSEn, Jesus Eguigurenek adibidez, PSEk zentralitatea har dezakeela pentsatzea. Baina, zentralitatea hartzeko PSEk egin behar duen ibilbide ideologiko-politikoak ez da Jaurlaritzak egin duena, kontrakoa baizik. Eguigurenek ezin du pozez hartu orain Patxi Lopezek daraman ildoak. Salbuespen egoeran gauden seinalea

da. PSE honek ez dauka ezker abertzalearekin paktatzeko gaitasunik, eta poloak ezin dira parekatu, alegia, ez du balio esateak EAJrekin edo PPrekin paktatzen dut eta herri honetako zentralitate politikoa betetzen dut. Zentralitate hori lortzeko PSEk bere dimentsio baskista asko sendotu beharko luke. Patxi Lopezek dioten zentralitatea hartzeko asmoa badu, irudi edo sentsibilitate baskista landu behar du.

“Euskal gizarteak independentzia aldarrikatzen badu, bada, zergatik ez?”

PPrekin akordioa utzita, EAJrekin paktatzea aurreikusten duzu, EAEn?
Ez. Orain dagoen anabasarekin PSEk ezin du Gasteizko Legebiltzarrara desegin edo PPregandik alden-duko, bidea beraientzat oso arrisku- tsua delako. Aitzitik, PSEk eta PPK gobernu honen bitartez, iraganeko zenbait politika (beraiek identitario- ak deitzen dituztenak, besteak beste) desegin nahi dute. Beren ikuspegi sistemikotik, Estatuaren ildo estrategikotik, bide subiranista edota abertzaletasuna ahuldu eta desmuntatu nahi dute. Baina kontu- tuz, Estatuak hori ere kontrolatu behar du, muga batzuk daude, ezin du gizartearen aurka joan eta goitik beherako aldaketa egin dezakeela pentsatu.

“Edozein itun subiranistan ELA eragile gakoa da, eta Gernikako Adierazpenean ez dago. Hor hutsune izugarria dago”.

Trantsizio prozesua arrakastatsua izateko, indar subiranistek uneon bizi duten menpeko egoera gainditu behar dutela idatzi duzu.

Bai. Nire ustez, analisi hori ezker abertzaleak aspaldi egin zuen, baina inertzia eta ildo asko dago bere barnean: borroka armatuari balioa ematen diotenak eta horrenbeste balio ematen ez diotenak daude oraindik ere. Ikuspegi etikoa alde batera utzita, ikuspegi politiko her- tsi batetik beti egon da eztabaida hori ezker abertzalean. Dena den, Lizarrako Akordiotik aurrera, Europako nahiz munduko eztabai- da ideologikoak nondik nora doa- zen ikusita, bistan da subiranotasu- naren edo nazioaren aldarrikapena bideratzeko tresna batzuk ez direla baliagarriak...

(...)

Ez bakarrik baliagarriak edo eragin- korrak ez direla, baizik eta kaltegar- rriak direla zenbait pauso emateko. Ikuspegi subiranista batetik, gaur egun edozein planteamenduk indar metaketatik abiatu behar du. Argi dago, aurreko inertiak oztopoak direla eta aurretik kendu behar dire- la ahalik eta azkarren, noski, bistan da ere, tentu handiz egin behar dela.

Gernikako Ituna nola baloratzen duzu prozesuaren barnean?

Lehen aipatutako faktorea indarrean dago betiere: ezker abertzaleak aldi- ro-aldiro bere urratsen eta indarren eraginkortasuna —eta arrakasta— neurtu behar ditu hauteskundeetan. Gainera, orain, hauteskundeetan sartzea ez dago bere esku. Areago, Gernikako Itunean ere Aralar dago, baina ez da hauteskundeetarako apustu bateratua. Itunak ez du hau- teskundeetarako aurkezteko formu- la aztertzen. Nafarroan gainera NaBai dago. Prozesuan hauteskun- deak izatea distortsio izugarria da. Alegia, Gernikako Ituna gartatzea askoz errazago litzateke hauteskun- deen distortsiorik gabe. Kontuan hartuta prozesuaren garrantzia,

planteamendu subiranista batetik, Gernikako Itunak daukan arazoetako bat hauteskundeetara begira egotea da, arazo oso handia. Areago, edozein itun subiranistan ELA eragile gakoa da, eta honetan ez da sartu. Egun, sozio-ekonomiak daukan garrantzia ikusita, arlo hori ezin da inolaz bereizi alde politikotik, arlo sozial eta ekonomikoa inoiz baino integratuagoak izan behar dira itunean. Hor hutsune izugarria dago. ELAk, ziur aski, honela dio: argitu ditzagun puntu guztiak ondo, ez gaituzue Lizarrako Akordioan bezala harrapatuko.

Ez zara baikor, beraz.

Nondik begiratzen den. Sigla eske-ma sorta horretan ez dut ikusten planteamendu sendoa egiteko aukerarik. Noski, Gernikako Ituna baliagarria izan daiteke prozesuaren ziklo hau ixteko. Balio du atea ixten eta irekitzen joateko: Altsasuko Adierazpena izan zen; Euskalduna Jauregikoa gero, Gernikakoa ondoren. Jendea zikloak eta faseak barneratuz doa, barne pedagogia hori oso inportantea da. Dinamika horren ondoren, atzeraezinezko puntu batera iristea da kontua. Itunek bere funtzioa betetzen dute zentzu horretan.

Subiranotasuna hegemonikoa izan dadin, estrategiaren birformulatze bat planteatzen duzu zuk.

Bai. Euskal Herriko indar sozialek eta zibilek hainbat proiektutan izan duten parte-hartzea eta bizitasuna erdua da. Hala ere, politika egiteko moduak aldatu behar ditugu, berrikuntza handiagoak behar dira. Subiranismoak biltzen dituen edukietatik abiatuta –neoliberalismoaren aurkako borrokatik eta subiranotasuna ulertzeko berezko modutik– gure egiturak eta diskurtsoak aldatu behar ditugu praktketan. Subiranotasunaren sinbologiaren aldaketa ere behar da. Orain arteko erritual eta eskemekin hautsi behar da neurri batean. Hau da: politika liberala eta gizartean lantzen diren eskema partidista horiek erabat aldatu behar dira, prentsarekin jarduteko moduak. Alderdiaren eskema klasikoa hautsi behar dugu eta nazio eraikuntzarako beste baliabide

batzuk asmatu. Ez bakarrik borroka armatua, politika egiteko modua bera ere zaharkituta dago.

Eredua erabat berritu...

Politika partidista ez da desgertuko noski. Euskal Herrian ez dugu asmatuko inon asmatu ez den politika egiteko modu erabat berri-tzailea. Erakundeetan bideratzen den ordezkartzaren politikarekin jokatu beharko dugu. Baina ez da gauza bera gizarte zibil ahul bat ala klabe subiranistan eta kontraboterean dabilen gizarte zibil antolatua eta saretua izatea. Lehentasuna horretan jartzen dut nik.

Sistema irauli gabe, baina...

Noski, alderdien ordezkartza beti izango da, baina gizartearen birsortzea, alderdien ordezkartzara iristen dena, ez da egiten elite politikotik. Edozein dela elite politikoa, ezker abertzale politikoa izan edo bestelakoa izan. Subiranismoak ez du alderdien eskema klasikotik bide egingo. Subiranotasunaren hegemonia gizarte indarretatik etorriko da. Hau da, euskal gizarteak independentzia aldarrikatzen badu edo espainolekin ez goazela inora esaten badu, bada, zergatik ez? Hori da sendotu behar dena, nire ikuspegitik, noski.

Gizarte zibilean badira horretarako indarrak?

Bai, adibidez: Arrasateko bailara aldean. Deba eskualdea antolatzeko ekimenak lantzen ari dira: iraunkortasuna, azpiegitura eta garraioa lotuz. Euskara eta komunikabideak uztartuz. Eskema horiek indartsuak dira, subiranismoaren aldeko indarrak bideratzeko benatako eskemak herri mailan garatzen diren horiek dira. ■

argia.com Elkarrizketaren beste atalak.



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com

 AQUARIUM